

IGA-027 Hizlari ezezaguna
Igantzi, Nafarroa

Aurkibidea

Biografia

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Igantzin jasotako lekukotza anonimoak.

Zintak

IGA-027

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Audio digitala

Pasarteak

1. Etxea tximisten kontra babesteko

- **Erref:** IGA-027/001

- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Erramua ere kuidau! Hori ere gauza bat hagitz delikatua zen, e! Hori genek (?) ibiltzen zen trumoiak, badakizu zer diren trumoiak? Trumoiak eta hola zirelarik, tximistak eta hola, pues, jendea ikaratzen da, eta segi erramua... erramua paratzera han. Piztu kandela bat eta erramua, bai. Eta erramua aunitz eta erre, usai hura, usai hura, eta trumoiak eta... itzaltzeko, tximistak eta zera egiteko, hartzen zen. Orain ere, orain ere bada kostunbrea ekartzeko trumoi edo... erramuak etxeetara, Erramu egunean bedeinkatu eta etxera ekartzeko horiek, orain ere bada kostunbre hori.

- A, trumoiak uxatzeko!

- Ba, bai, bai, trumoiengatik. Hor bada erran bat ere, Santa Barbara, ba hori:

“Santa Bárbara bendita
uste[d] está escrita
con papel y agua bendita”

Hori... hori erraten genuen:

“Santa Bárbara bendita
en el tzielo estás escrita
con papel y agua bend...”

- ¿Y agua bendita?

- “Y agua bendita”, bai.

2. Opilak jan

- **Erref:** IGA-027/002
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:03:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta gero izaten zen errota, eta (...) garia ehotzekoa, errota berean bi, bi erro izaten ziren, garia ehotzekoa eta artoa ehotzekoa. Eta, garia ehotzeko hartan ehotzen genuen garia, eta egiten zen pues... esnea izaten zen beti etxean nahikoa, pues, ahia. Papilla, orain papilla erraten den hori egiten zen, irinarekin aski ona egiten zen gainera.

- (Erraina): Haurrentzat bakarrik, edo...?

- E, geuretzat! Joe, bost, sei litroko eltze bat esne egosi, eta bota hari irin hura eta nahas-nahas-nahasi egin eta loditzen zelarik, pues, ura jan eta lo egitera.

- A, afaltzeko bale, bale.

- Afaltzeko, afaltzeko, afaltzeko izaten zen. Pues opilak egiten ziren, eta opila pixka bat nahasi hari eta ez zen txarra izaten, e! Hagitz gustu ona

izaten zuen arto, edo... irin hark. Hura izaten zen guretzat lautik hirutan afaria. Pues lehen nola ez zen izaten ogirik, pues, gu... guk izanen genituen hamabi, hamahiru urte ogia jaten hasi orduko, plantan. Gu eskolan ibiltzen ginelarik ere, beti oroitzen naiz ni zaku txiki batean, arto irina ekartzen nuen goizetan. Lau baldin baginen, lau senide, zaku batean. Errentan jaten genuen, hor eltzaria ematen ziguten, eta hor opilak egiteko egina. Zenbat opilna izanen zen haren neurria? Lau opilarena, opil bana. Eta gu joaten ginen bazkaltzera eta Mayi, Mari, Jesus zer meritua! Igual gu eta Argaratetxeberrikoak eta igual bost-sei lagun, edo zazpi-zortzi haur. Joan eta opilak, opilak egiten aritzen zen, gu joaten ginelarik opilak egiten igual tla-ta-ta-ta... hartzen zuen opila eskutara holaxe, eskutan joka, kozinara pla! kozina gainera eta kozina, sukaldea dena ketan. Opilak han nabala handi batekin flak! buelta eman, flak! bertzaldera, eta harrika zuri. "A, to, hiretzat!" eta, "To, bertzea hiretzat!" eta plater bat eltzaria han izaten genuen, plater... eltzari hura jana izaten genuen, eta etxetik ekarri izaten genuen txokolate pastilla bat, edo gazta puskaren bat, edo zerbait ere. Pues, opil harekin gazta puska hura jan eta plazara, pilotan aritzera. Hura izaten zen gure bizia.

3. Haragia nola mantentzen zen

- **Erref:** IGA-027/003
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta, e... haragia nola mantentzen zenuten?

- (...) Lukainka egiten genuen orduan idortzen zelarik paratu zartagin batean olio... egin erdia edo horrela olio, eta baratxuri bat bota harat, eta hura gorritzen zelarik, zerriaren manteka. Hura edukitzen da lehenagotikan urtua, bertze eltze batean, eta horiek biak nahasi, eta eltze batean paratu... dena puskatu horrela lukainkak, eta denak han, eta fila bat paratu eta haietatik pixka bat bota, olio eta urin hartatik. Eta gero bertze fila paratu eta berriz bertze pixka bat urin hartatik. Eta egiten zen ura gero gogortu, urina horrela gogortzen zelarik, eta gero aldian puska bat edo bi, eltze haietatik edo, zertaz jantzita paratzen zenuen, ura atera. Eta bertzea gelditzen zen han.

Eta azpiak berriz egiten ziren, pues, sartu gatzean, kajon batean, eta, gatzarekin ongi tapatu, eta harri handi bat paratu odola ateratzeko. Gero buelta eman bi egunez, bi egunez hala eduki eta buelta eman. Eta berriz gatzarekin ongi tapatu. Eta bi egunetik, ja... hogei bat egunez edo horrela ibili eta gero atera, uretan garbitu, eta zintzilika paratu. Eta gero euliak ez egiteko zaku batzuk izaten ziren, euliek bertzenaz egiten dute hondatu. Eta orduan zakutan sartu, eta lotu zaku hura eta, (gero) behar zelarik handik puska kendu eta, jan.

- A, eta... puskak nola ba... banatzen zenituzten? horrela...

- Puskak berriz, zerria hiltzen zelarik bi odolki, eta kostilla pixka bat, hezur txiki bat, eta haiek paper batean bildu, eta poltsa batean harekin etxe batera. Bertze etxera igual, bertze bi odolki edo zer ziren, horiek hartu eta bertzea bertze etxera. Eta etxe horretara joatean, pues, hartu zituzten puskak eta ematen zuten dirua zerbait ere. Ematen zuten diru hura,

puskekin joaten zena, harentzat izaten zen, etxe batzuetan gehixeago, bertzeetan gutxixeago...

- Eta haurrak joaten ziren, ez?

- Beti haurrak joaten ziren, eta haurrak zein etxetan ematen zuten gehienexkoena, pues, denak joan nahi.

4. Atso bisita

- **Erref:** IGA-027/004

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:06:58

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Hori izaten zen, pues... haur bat jaiotzen zen denboran, auzoak eta Lesakatik eta ere gure etxera azkarki etortzen zen jendea, bueno, gure etxera adina noski inon ere ez, e! inorat ere. Berrogei... igandearekin izaten ziren, eta berrogei... emakume etortzen ziren.

- (Biloba): Beti emakumeak izaten ziren.

- Emakumea, emakumeak! Atso bisitara emakumea izaten zen, beti.

- Eta zer egiten zenuten?

- Eta gero, pues, hori, hiltzen genuen zikiri bat, eta harekin dena gisatua paratu, kozinera Lesakakoa izaten genuen, eta gisatu harekin paratu, gero oilaskoak hiltzen genituen, hura zertu, zopa berriz, oilo salda zopa harekin egin, eta hantxe, vivir la vida, ardoa, eta...

- Juerga ederra!

- Bai. Bai! Juerga... bueno, kristoren juerga pasatzen zen! Honako Argiñordako andre hark, hark ere izaten zituen..., hagitx lagunak ziren arrunt, Argiñordakoak eta... horiek, horiek Antsonen... Iketarrok eta... Elbiraren ama eta horiek denak lagunak izaten ziren, eta horiek denak hantxe ibiltzen ziren, bai. Hori, eta gure amari ez kendu hori, e! Jesus! Bai! Juerga... auzotik ekartzen genituen platerak eta... zera, ez baitzen aski izaten etxean!

5. Elizan sartu arte teila buruan

- **Erref:** IGA-027/005

- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:07:25

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Zortzigarren egunean edo horrela... elizan sartzea egiten genuen. Joaten ginen arra... hori, apezarekin egon eta... haurrarekin hura egitera. Orain... orain ez da egiten hori, antza utzi zen, bai... (...) Elizan sartzen zinen bitarterainoko, ezin zinen teilatupetik atera, eta, atera behar baldin bazenuen, teilatu edo... teila... horietatik bat buruan paratuta. (...) Eta elizan sartze hura... eta orduan ja haurrarekin eta elizan sartzen zelarik, orduan ja... libre ateratzeko...

6. Atso bisitarako abisatzea

- **Erref:** IGA-027/006
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:08:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Abisatu bai, bai! Hura ibiltzen zen ama, ni ez nintzen ibiltzen, baina ama ibiltzen zen denetan, Arantzan eta... bueno, Arantzan ez, Lesakan, Lesakan, bera lesakarra zen, eta hango pariente pila bazituen. Eta harat haiei denei abisatzen zien, eta gero hemen ere bera ibiltzen den toki... bisita ibiltzen zena, berriz erraten zion, eta, denak han biltzen ziren gero.

- Eta nork abisatzen zuen?

- Hark, nire ama.... edo nire amaginarrebak, hark abisatzen zien denei, horiek, atso bisita zer egunetan egin gogo genuen, eta, orduan denak etortzen ziren.

- Eta norbait ez... ez bazen abisatzen, ze pasatzen zen?

- Haserretzen ziren, oi ama!

7. Toberak

- **Erref:** IGA-027/007
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:08:02. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Pues toberak ziren bat (sic)... esposatu behar zuelarik, neskaren batekin, pues, auzokoak edo lagunak edo sartzen zituzten bi palanka, bi burdina, horrela, luzeak, palancas.

- (Lag.): Bai.

- Bai, horiek, palankak. Eta hura haiek denak adornatzen zituzten... hura... paper klase guztiekin, kolore guztiekin. Haiek ongi zertzen zituzten, eta hagitz politak paratzen zituzten bezpera arratsaldean horrela, despedida zenuen egunean, bueno... proklamak.

- Pregoian egunean?

- Pregoian egunean. Eta, haiek paratzen zituzten dena zertua, eta gero etorriko ziren kuadrilla dena... arratsean. Zuk edo... egiten zenuen, bueno,

apezak erraten zuelarik esposatzen zinela, arratsean etortzen ziren akordeoiarekin eta, eta, egiten zuten burdinak atera eta kantatu eta... gero haiek, burdin haiek kan! kan! kan! kan! eta akordeoia jo. Eta akordeoia jo eta bertso batzuk botatzen zituzten. Eta... kantatzen zuten:

“San Martin de la monja
Monja de San Martin
Tobera jo dezagun
Birjiña Amarekin
Birjiña Amarekin eta
Berso berriyekin
Oia jantzirik dago
Lau almudarekin
Lau almudarekin eta
Gure Jaunarekin
Nobiya etziteko
Nobiyo jaunakin”

Eta akordeoia jotzen zuten, eta hura jotzen zuten.

- A, eta bertso horiek zer dira hemengoak baita ere?
- Hemengoak, bertsoak, edo Mattinarku eta Zamunbordakoak eta ziren erin... Eta gero gau guztian pues... akordeoia eta dantzan.
- (Lag.): Eta zer egiten zenuten, etxean merienda eman edo...?
- Andregaiaren etxean.
- Merienda edo horrela, edo zer...?
- Bai, gero, pues, ardoa, eta kafeak, eta kopak, eta denak nobiaren etxean hartzen zituzten denak, eta besta egin, ia argitu arte.

8. Hildakoak nola jantzi

- **Erref:** IGA-027/008
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Jantzi orain egiten dute ere bai, baina ai, orain... ez, ez, orduan, orduan... emakumea zena igual... ezkondu zen arroparekin. Eta... gero... (...) nire aita... amaz ez naiz ongi oroitzen nola jantzi zen baina... aitaz bai. Ezkondu... zen orduan traje beltzarekin, eta hura entierro egunerako altxatzen zuten. Ibiliko zuten urtean behin, Ortzirale Santuaren prozesioa. Ba! Gehiago ez, e!

9. Hildakoen bideak

- **Erref:** IGA-027/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bueno, preseski ez baserri bakoitzetik ez bide bat direkto harentzat [elizara], e! Baina auzoko, auzoko eta baita baserri partikular edo bakarrak daudenak, haiek ere bazuten beren bidea. Baina ziren bidexkak. Bidexka badakizu zer den, ez? Honako... tamaina honetako... bai, meta erdi bat edo holako bide bat, eta hura egin behar zen errespetatu. Kuidau hura, bide hura zerratu, zergatik bazenuen orduan... Aiuntamentuari parte emanen zenion eta... baziren baserrietara bidexkak. Nonahiko landatik joaten zen, oraindik lgantzin, orain ari dira galtzen, zergatik orain ez baita bidexka beharrik. Orain traktorearekin egin dira pistak eta orain ez da horien beharrik. Baina bidexkak, han. Eta bidexketan, landako lanak egiteko, zuk bidexka pasatu eta haraino duzu landa hura, pues, pasatu behar zenuen behi bat aldian. Bi behi izaten dira goldearekin buelta emateko eta lurrari, pues, behi bat eraman behar zenuen, han nonbait ere... terreno komun batean, han behi bat laxatu, uztarritik kendu, batek uztarria... duen behi hari kontu, eta bertze behiak sokatik eraman bidexka hori akabatu joateko bere landan sartzean. Gero behia, uztarriarekin duen hori, eta eramaten zuen, eta han lotu berriz, han lan egin. Eta gero bueltan igual. Asike bi behiak ez ziren pasatu... pasatzen ahal bidexka hartan, zergatik ja bertzearen terrenoa hartzten baitzuen. Bidexkan joan behar zen... batek joan behar zuen. Eta gizonak ere bat, bat aitzinean eta bertzea giblean, horrela, fila indian joan behar zen. Begira ezazu, eta orain ari dira... orain galdu dira, oraintxe eta... pf! e... hiru-lau urteotan edo bortz urteotan galdu dira, lehenetik hasi ziren galtzen aspaldixko, baina ja hondarra galdu da orain, ja arruntean, ez da orain...

10. Erleak

- **Erref:** IGA-027/010
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:18:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Aitak izaten zituen erleak eta... mutiko koskorretan beti han ibiltzen ginen aitaren ondotik, erle... erleetan. Eta, baina, primaderan eta umeak ateratzeko tenorean, pues, egunean igual hamar biaje egiten genituen erlategira. Aitak erraten zigun: "Bai, begira iezaio, begira iezaio, joan eta begira iezaio aber erlekumeak badiren". Aitzineko ilunabarrean igual ikusten ziren kaxak behetik: "Bai, honek aterako dik umea bihar, edo etzi edo...". Eta joan, eta begiratu eta ez zen ateratzen igual egunetan, baina ateratzen ziren eta orduan hauek gelditzen ziren, en general, zerbait ere adarrean, baldin bazen sagar ondoan, sagar hor barrena, edo muxika arbola baldin bazen, muxika arbolan adarrean dena gelditzen da, pilota bezala hori, motzoko-motzoko batean. Pues orduan, pss, ateratzen zelarik abisatzen genion aitari, eta hark jartzen zituen kaxak prest, kaxa txar batzuk eginak berak tablekin, eta han sartzen ziren erlekumeak. Eta egun batean bazen lizarrondo bat eta horrela, franko altua. Eta aita joan zen lizarraren gainera, eta ni, berriz, kaxari kontzen azpitik, mutiko kozkorra ni eta, aitak egin behar zuen adarra jotzeko buruarekin, eta erlekumea bota beheiti. Eta nik orduan egin behar nuen kaxan sartu. Eta egin genuen aitak jo zuelarik, nik kaxa mugitu izanen nion, eta orduan

etorri zitzaidan burutik beheiti, erlekumea dena, oso-oso. Eta... nik ez banio kasurik ere egin, ez zuen eginen ausikirik, baina hasi nintzen pixka bat... eskuekin horrela, eta egin zidan ausikitu. Bueno! Igual egin izanen zidan hogeita hamar ausiki!

(...)

Hemen suertatu zen berriz herrian bertze bat. Erlekume bat atera zen, eta baziren kubieta zahar batzuk eta toldo zahar batzuk, eta sartu zen han; sartu ez, han, bildu zen hartara. Eta jende guztia hor... erlea eta izutua, ausiki eginen zutela eta horrela. Eta etorri zen gure etxera gizona eta erran zigun:

- Hi, ez dakit, erlekume bat baduk hantxe eta... zer egin behar dut? Ari ziren sartzen eta...

- Ni aritzen naiz, ez dakit, ni orain ez naiz aspaldian aritu, baina...

Joan eta ikusi nuen eta, koño! Ba! Banuen saski bat, saskia egiten aritzen naiz pixka bat eta saski bat banuen egina hor, luzea, panaderikoa. Eta, ba! Meka... joan eta:

- Bada honaixte sartu behar dut.

Joan nintzen eta ikusi nuen multzokoa eta paratu nuen haren gainean, saskia, eta ezagutu nuen segituan. Erlea dena jarri zen ipurdiz goiti “ñiii...” holako musika batekin, eta hasi zen barrena sartzen. Eta:

- Ba! hau segurua duk.

Eta orduan egiten da, jotzen duzu txistua “pi-pi-pi-pi-pi-pi-pi...” kaxaren gainean, eta orduan eta agudoago sartzen da, eta instant buruan sartu zen barrenera, erlea. Eta gero eraman nuen mendira eta paratu nuen han, eta deskuiduan pasatu zitzaidan. Klaro, saskia nola zen leuna, egin zuen beraska pixka bat, baina zer egin zuen eztia egiten hasi zelarik, haiek izan bazituen bi ziri, bi aldeetara paratuak goian, beraska segurtatuko zen han. Baina, nik ez paratu ziririk, eta egin zuen beraska eta eztia egiten hasi zelarik, eta karga pixka bat egin, beheiti erori, lurrera erori zitzaion beraska, bere eztiarekin, eta hil zen, akabatu zen.

(...)

Eta gero ibiltzen ginen bila ere, erle bila ere.

- Asurara edo...

- Bai, guk badakigu bi orduko bidea eta gehiago egiten, mutiko koskorak, gu baino juizio gutxiago zuten etxean oraindik gu uzten zigutenak. Bi egunerako hartu zaku betea eta Asurara, erle bila.

Eta... joan eta denbora txarra, denbora izatearekin euriak harrapatzen die, en general, uretik. Ura edaten dute, eta uretik zuzenean joaten dira haien lekura, nonbait ere, haien lekura, harat hartuko dute uretik zuzen-zuzenean eta orduan bi lagun edo hiru izanez gero, batek hartzen du bide pixka bat, eta bertzeak abisatzen dio hemendik:

- Hara, heldu duk!

Eta hark ikusten du noraino joaten den, eta hark, bertzeak abisatzen dio:

- Gora heldu duk!

Eta ja orduan ja istantean joaten zara bere lekura. Eta hala joan ginen, eta denborak kanbiatu zuen, eta, hasi ginen pues, urik gabe, arboletan bilaka, eta bizkarra sartu genuen goitik beheiti eta horrela haritz besanga bat eta, begiratu, eta:

- Mekaben diez! Hemen erle bat duk!

Begiratu eta erlea. Hasi eta segituan bat harrapatu genuen. Eta begiratu lehenbiziko lana ea baduen gurutzerik, ez bazuen gurutzerik “hau gurea duk”, eta gurutzea baldin bada, errespetatzen da beti. Ez da... nik ez dut... ni ibili naiz franko, baina gurutzea baldin bada, isil-isilik buelta, fuera.

Bertzela, bai, bertzela erraten dute suerte txarra ematen duela, pues erlea horrela, batek harrapatu eta bertzeak kentzen badio eztia, pues hagitz suerte txarra ematen duela, hagitz gauza sakratua dela eta horrela, eta ez

genuen egundaino, egundaino, egundaino ere bertzerik egundaino hartu, eta guri ere harrapatu digutenak beti han harrapatu ditugu, igual da urtean buruan joanda ere pues errespetatu zuen jendeak. Gurutzea egin, beti erlea ateratzen den toki aldetik. Gero ez erlea atzetik ateratzen bada, gibleko aldean ez egin gurutzea, beti erlearen aldi hartatik. Nabala batekin horrela, arbola axala kendu, eta gurutze bat normala egin. Eta peña baldin bada, peñan berriz egiten da zerbait ere, teila puska batekin edo, gurutzea ondo-ondoan eta errespetatzen da beti. Eta horrela ibiltzen ginen igandeetan, bueno!

11. Lehenbiziko usoa apezarentzat

- **Erref:** IGA-027/011
- **Iraupena:** 0:00:14. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Oktubrean, ehiztariek behar zioten apezari denek lehenbiziko usoa apezari eraman, eta aunitzek ez zuten hiltzen, eta ez zioten eramaten:

- Zer, usoa?
- Ha! Nola ekarriko diot, ez dut hil eta! Ez dut bakarrik hil!

12. Makientzat hilerri zibila

- **Erref:** IGA-027/012
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:19:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta gero kanposantuan bazegoen, ez elizara joaten ez zirenengana, ez, lehenago baziren maquis, izanen duzue aditzea, maquis. Eta hemen etorri ziren makiak honat, eta Igantziko eta Arantzako mendian aritu ziren tiroka, hemengo ejerzitoa eta makiak etorri ziren Frantziatik joanak ziren, eta handik engainatu edo horrela baitziren ere, etorri ziren mendiz mendi, eta baita Franco ez dakit zer, eta Franco... egin behar zuen denen artean hunditu, hala, eta hil zen, bi edo hiru hil ziren hemen Igantzin, hilez tiroz eta gero zentral bateko deposituan ere, kanalean deskuidatu eta zentraleko depositura joan zen eta han atera zuten. Eta haientzat bazen kanposantuan egin koadro bat, konparatzera lau metro kuadrado edo horrela, dos por dos edo horrela, eta zen hura, koadro hura haientzat, lurra bedeinkatu gabea.

- Ala! Makientzat, e!

- Bai, makientzat. Eta haiek izaten ziren eta eibartarrak, eta ni nola igeltsero izan bainaiz, pues, nik egin nuen, neronek sepultura egin nion han, eibartarrari. Etorri zen niregana eta nik egin nion. Eta oraindik hantxe da sepultura, baina bakarrik pareta hura ja bota da, ja Franco hil zenean eta orduan paretak denak bota ziren, eta gelditu zen lurra dena bedeinkatua, dena... dena berdina.

13. Jaunartzea-konfesatzea

- **Erref:** IGA-027/013
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Sakristian nik badut anekdota edo kasu bat pasatua. Orduan, badakizu, gainera konfesatzea izaten zen primer vienes erraten genion, izaten zen. Eta gu biri... bi lagun horiek, erran ditudan horiek, bi lagunek, pues, aritzen ginen astakeriatan, bu! jostetan eta... ba, adina gazteak zait... gazteak baikinen, eta horrela aritzen ginen, eta, ostia ekartzen genuen apezaren etxetik, neskatoak ematen zigun, eta ekartzen genuen, eta guhaurek paratzen genituen kopoieta, eta han paratzen nituen denak. Eta batean, zer pasatu zen? Egin nuen nik jan, ostia hura. Eta orduan nola ez baitzen libre komulgatzea deus hartu gabetanik, arratseko hamabietatik aitzinera ez zitekeen deus hartu, ez jan eta ez edan, komulgat... komulgatu aitzinean, arratseko hamabiak bitarte bai. Baina nik goizeko zortzietan ostia hura... ostia hura jan nuen, eta gero ordu erdi baten buruan, mezako denboran nintzen komulgatu beharra. Eta pentsa ezazu orduan zer... indarkeria zenbatekoa zen, pues nik pentsatu: "Oi, ama! Nik hau hartu diat, orain ezin dut komulgatu. Ezin dudanez komulgatu, apezak jo eginen nau!". Horrela, e! Horrela gauza, e! Errieta fuerte emanen dit edo joko nau ni zerengatik ez nintzen egin. Eta nik neukan, bueno, remordimiento bat ikaragarria haren beldurrarekin, komulgatu beharko nuela, eta niretzat bekatu ikaragarria egiten nuen, entenditzen duzu? Bekatu ikaragarria egiten nuen, zergatik baraua hautsi bainuen. Eta ni, beldur hark garaitu ninduen, haren beld... haren disiplina... haren beldur hark, egin nintzen komulgatu. Baina komulgatu nintzen, bueno, hura zen gauza bat sartu zidaten barrenean karga bat, ikaragarria ezin nuena kendu gehiago,

zergatik, uga... gainera joan behar nuen beti harengana kofesatzera, eta nik hura e... hura ez kofesatu. Eta nik neukan nire buruarekin: “Baina nik zer bekatu egin dut!”. Zergatik, bekatua nik egin nuen edo... hori, baraua hautsi nuelakoz. Eta, gero, kofesatzera, bertze bekatua, eta nire buruan pentsatzen nuen: “Baina ni zer bake, bekatu mortalak baititut hemen burutan, zenbat ote ditut?!”. Horrela, ez kofesatu, ez kofesatu, ez kofesatua, eta larunbatero kofesatu behar izaten nuen, larunbatero kofesatu.

Begira, hori zen gauza bat... bueno, ez dut ikusten gauza horiek ongi dela behinik behin, baina nola z... horrela baitzen, gure... gure txiki denboran horrela baitzen, eta, horrela urteak aguantatu zitzaizkidan niri, urteak, zeren gero ongi kofesatuagatik nola ez nuen kofesatzen gauza hura, eta beti beraiekin egin beharra, ez nintzen atrebitzen berari erratera. Eta horrela pasatu nituen nik... urteak, e! Ezin. Gero bertze misiolariak etorritz eta horrela, es... haiek esplikatuta, haiek egin na... egin ninduten kalmatu, eta, jarri nintzen trankildua. Pf! Pentsa ezazue, gaur, berriz, gauza hori... gau... zer den? Orain, ongi afalduta zoaz eta komulгатzen ahal zara, baina orduan ez baitzen horrela (...). Arratseko hamabietan, bitarteraino bai, baina hamabietatik aitzinera, komulгatu bitarteraino ezin zinen... ezin zenuen ez eta urik ere ezin zenuen edan, ez... ez zen libre.

14. Elizan hilerria izaten zuen etxe bakoitzak

- **Erref:** IGA-027/014
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:24:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Hilerria, hilerria erraten diogu hori...

- Kanposantuari, ez?

- Ez, han bertan, elizan bertan izaten ziren sillak, bakoitzak bere tokian, izan balu bezala erosia terreno hura, hura han ez zuela inork ere ukitzen ahal. Eta silla han izaten zen, silla edo... ez silla hori bere... zerarekin, nola erranen nuke? Bueno, bada hori, jarrita... belauniko jartzekoa eta jarrita egotekoa. Eta izaten zen baserriaren edo etxearen izena han izaten zen, eta hura ezin zenuen ukitu, hombre, ukitu... begira ezazu, e! Horrenbertzeraino horrela ez, baina ezin zinen han egon. A egon... han egoten ahal zinen, silla hartan, ez baldin bazen etxeakoandrea etorria egoten ahal zinen, baina etxeakoandrea etorritz gero, handik fueratu behar zenuen, e! Ja haren tokia zen. Eta gero paratzen zuen argi bat, argizaria paratzen zuen han, han hori.... aitzineko aldean, eta hura zen seinalea, defuntuen zera zen. Horrela horrek aguantatzen zuen urte bat eta gehiago ere, egune-egune-egunoro gauza hori bera.

Edo kandelak ere bai, han... han bat edo bai, izaten dute aparatu txiki bat hola, eta kandelak igual hiru edo lau kandela bakoitzak bere... hil berrietan, e! Konparazio urte batez edo horrela. Bertzeek ez, bertzeek ez dute, baina hilez... orduan zuk nabaritzen zenuen zein zi... zein zen hil berria, sartuz gero, pues bazenekien: “Hona non den hori, hona non den... zein den hila”, zera azertatzen zen aise. Baina orain ez, orain dena galdu da, orain ja bankuak dira paratuak eta... ja ez da deus ere.

15. Ezkilak erasoen kontra

- **Erref:** IGA-027/015
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:24:25. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Etortzen zelarik trumoia eta harri eraso, harria izaten zen. Orduan, bazen tipo bat jotzeko: din-dan! din-dan! din-dan! din-dan! din-dan! di! Ezagutzen nuen ezkilagatik, ezagutzen genuen, harriko eraso ze... bue, gero denbora bera ere ezagutzen genuen, bai, denbora bera hala zen, e... berak erraten dizu, baina zen ez... ezkila jotzeko manera diferentea, eta-eta-eta-eta-eta-eta! ti-to-to! Ezagutzen nuen: "hau diferentea!".

- Eta zer, jendea etxeetan sartzeko, ez?

- Klaro, jendeak gero errezatzeke, errezatzeke, errezatzeke hori... tenpestade izugarri hori akabatu dadin.

16. Erre ezkila

- **Erref:** IGA-027/016
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Gero, mendi bat sutan baldin badago horrela, sutan, gauaz suertatzen da aunitzetan eta egunaz ere bai, jendea mugitzeko, hori, "Pinuak erretzen ari dira!" edo ez dakit zer, dena mugitzeko, orduan bada bertze ezkila klase bat, bertze ezkila klase bat.

- Nola da? egiten ahal duzu?

- Jo eta, jo... hor jotzen da, dan-dan-dan! din-din-din! dan-dan-dan! din-din-din! A, horretako, jendeak ja bazekien: "Oi, sua! Sua! non da sua? non da?!", gero ikusten duzu nonbait ere kea eta joaten zen lasterka, apurua.

17. Goizeko ezkila jotzeak

- **Erref:** IGA-027/017
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:27:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Argi-ezkila jotzen zen goizeko zazpietan. Eta gero jotzen zen zazpi eta erdietan anuntzioa, meza zortzietan dela erran nahirik, deia. Hark deia nahi zuen izan. Argi-ezkila zazpietakoa eta deia, gaur justu, don! don! Ezkil handia, don! Ja argi-ezkila, ja... ja badakigu argi-ezkila ja... zazpiak direla.

Eta, hori... zazpi eta erdietan deia, horrekin mezara... joateko zera zen. Eta zazpi eta erdietan berriz, gu monagilloak, tin! tin! tin! ordu erdi batez, zortziak bitarteraino, eta zortzietan gero meza.

Gero kontsagrazioko denboran, Santus-ko ondotiko zera hartan, jotzen zen txirrintxia, txirrintxiekin, trin! trin! trin! Jotzen, eta, jo behar zituen ezkilak hiru dum-dum-dum! Eta gero kontsagraziokoan, hura, apezak belaunka egiten duelarik edo ostia altxatzen duelarik hura, dum! Bakoitza.

Eta lehenago bazen bertze ezkila jotze bat ere, hori... arratsaldeko hiruretan, hiruretan Jesukristo hil baitzen a las tres de la tarde, hil zen, eta haren seinalea, rekuerto bat, hiruretan jotzen zen.

- Eta nola zen?

- Hura, don! don! don! Zen hiruretan jotzen zena. Bua! Eta ni neroni... afizio ikaragarria nik hori, ezkila jotzeko eta, beti monagillo ibilia horrela, eta, eskolatik maestroari pixa egiteko permisoaz galdetu, eta jakiten genuen hirurak puntu erlojuari begiratzean, orduan ez zen erlojurik eskuetan, baina, orratzak eta ikusten nituen e... elizakoak eta, dak! atera, eta igual guhaurek jo hura, gustura! Bai, gustura! Hura, hiru, hiru ezkilak jo... jotzen genituen.

18. Ilun-ezkila

- **Erref:** IGA-027/018
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:27:14. **Bukatu:** 00:28:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Beno, ez zuen ordu... ordurik ez zen. Segun nola, eguna nola ez dakit, udan eta neguan ez zenuen... ez zenuen tenore bera jotzera. Beti tamaina bat hartzen zuen ezkila jotzaileak eta hura joz gero, zenbat aldiz jende dena dantzan bitarteraino, igande egunarekin, eta hura joz gero, baina akordeoiak pieza akabatzen zuen, ez zuen akabatzen pieza hura, e! ra! kortatzen zuen.

- Eta neska joaten zen etxera...

- Eta plazan badira... konparazio lehenago dena herrikoak izaten baitziren, hau dena berriz e, ber... betea egoten zen. Eta, dena betea, neska eta mutil, han denak, pues minutu batzuen barrenean ez zenuen plazan inor ere ikusiko, denak, bakoitzak bere bidea. Batzuk... goiko auzokoak, pues, han barrena, bertzeak, auzo horretakoak han barrena, bakoitzak bere zera. Eta joaten ez zen... neska hura, hori, ezkila jota, pues zen edozein, entenditzen duzu? Edozein nahi du erran, pues, una cualquiera, hura joaten zena...

19. Hil-ezkila

- **Erref:** IGA-027/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:28:13. **Bukatu:** 00:29:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Hil-ezkila erraten genion, gizona baldin bazen hasiko zen, bi ezkila dira, batek bum! eta bertzeak berriz, tan! Mehea eta lodia. Eta gizona baldin bazen tan! hasiko zen mehea, eta hor ja: "Ai, gizona da! Norbait ere gizona da!". Eta bertzea baldin bada, pues, emakumea da.
- Eta gaur horrek segitzen du?
- Segitzen du horrek, segitzen du, segitzen du.(...)
- Eta haur bat hiltzen baldin bazen diferentea zen ere bai?
- Hura zen berriz ezkila txikia hutsa, ezkila txikia, ttin! tin! tin! Ja hark erran nahi zuen... (...) Zeruko... zera zela hori. Eta horrexegatik kaxa zuria izaten zuen hark, kaxa zuria.
- Aingeru edo...
- Aingerua, aingeruz. Honako haurra baldin bazen bataiatu berria edo komulgatzeko haurra edo, ba! hiru-lau-bost-sei urteko tamaina hori, haurra, haurra, inozente horiek, horiek... horientzat jo behar zen ttin! ttin! Orain ez dakit, geroztik ez da noski hil ere hemen, aspaldi ez dut ikusi, baina orduan bereizten zen, ezkilagatik.

20. San Joan

- **Erref:** IGA-027/020
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:29:08. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- San Juan... du istorioa, aita zenak erraten zidan niri beti, pues, San Juan agertu zelarik hor, peña horretan, arantzarek erraten zutela, muga-muga nola den, Arantza eta Igantziko muga, Arantza aldera. Pasatzen zutela alde hartara eta ondoko eguneko berriz lehengo lekuan izaten zela. Eta horrela ibiltzen zirela pelean beti San Juan... San Juanekin.
- Eta hori aitak erraten zuen?
- Aitak, aitak erraten zuen, bai, bai. Hark izaten zuen fede ikaragarria, bua! Hark San Juanekin. Eta, orduan San Juan egunean izaten zen besta bat hemen, bes... besta bat. Besta bat, bestetan bezala, hementxe agertu dira musikak eta pilota partidak eta denak. Jendea dena oinez ibiltzen zen. Eta kantinak izaten ziren, pues San Juanak nik ezagutu ditut zazpi, zortzi kantina. Bat izaten zen, San Juanen goian bada holako kortxel bat bezala arrop... paretarekin, eta han. Bat. Hura gau guztian han egoten zen, gu txikiak ginelarik, gau guztian. Eta orduan nola etortzen zen jendea dena oinez, etortzen ziren oiartzuarrak mendiz, mendian barna, erreka hori beheiti, eta han kafea hartu, oinetakoak kendu han, eta oinutsik handik beheiti bajatzen ziren, (...) oinutsik bajatzen omen ziren, beti kantineroak beti hura arrankatu du oinutsik, garbitzera hankak beheko erreka. Eta kantinak berriz, izaten ziren pues karreteraren bertze aldean. Eta... pues... hemen, bidean ere bai, hemen... arrond handik honat horretarako bidegurutze bat izaten zen, gero izaten zen (...) handik honaxeago, han ere paratzen zuten. Eta gero han, Muuka errekan, Arantzako muga izaten zen bertze kantina bat. Eta horietan nola etortzen zen egun guztian jendea, eta haiek, goizean etorri eta arratsaldean joan, berriz oinez, dena, egun guztia hor pasatzen zen, eta pila batek egiten zuen ekarri... bazkaria zerbait ere, eta bazter horietan jan, eta gero akordeoia izaten zen, musika izaten zen,

pues, juerga hor izaten zen, San Juan egunean. Eta guretzat izaten zen besta bat. Joe, aitzineko egunean guk ez genuen deus ere eginen lanik, aitzineko eguna ona izat... lana izaten zen guretzat, ziri batzuk egin, horrela, metro erdikoak edo horrela. Haiek ongi paratu, zorroztu eta prest-prest, lehertu pixka bat, eta hartan sartzen genuen erramua, lehenbiziko sartzen genuen lizar hosto bat edo adarxko bat, gero sartzen genion erramu bedeinkatua, eta gero sartzen genuen elorri zuria, ziri hartan. Lehertu pixka bat eta lehenbiziko ziri bat pasatzen genuen etxean paratzeko, pareta zaharrak nola izaten ziren etxe zahar horietan, pues, paretan sartu, eta hura ja bedeink... bedeinkatua gelditzen zen etxea ederki. Gero, ondoko goizean, argitzean, joaten ginen hara, belar soroetara, edo, landara, terreno guztietara. Hartu katilu txiki batean ur bedeinkatua, erramu sortaren bat bere bi hosto, eta hiru hostoekin eta ziria sartzen genuen aztiarik ibiltzen ez zen tokian, nonbait ere bazterrean, ez zedila... hura goldearekin edo... behiak edo ez harrapatzeko. Eta harrapatzen bazen eta, jes, segituan paratu nonbait ere, behiak harrapatzen ez duen tokian. Hura urte guztian hantxe egonen zen ziri hura, urte guztian. Eta s... belar soroetan gauza bera, sega ez... orduan ez zen segadorarik, segarekin aritzen baldin baginen eta traba egiten baldin bazuen, traba egiten zuen tokian paratuko genuen, eta hantxe egonen zen hura ondoko urtera arte. Eta, gero erramu hosto harekin bedeinkazioa ematen zenion, eta, guri hura erakutsi ziguten, Aita Gure bat erreztatu eta ja landa hori bedeinkatua. Segi bertzera. Goizean egiten genuen rekorridu hori. Aitak eta amak bidaltzen ziguten pues igual bat izkina batera, eta bertzea bertzera. Eta alor ormi (?) zituenak, denetan paratzen zen hori. Hori... paratzen zen denetan, denetan, denetan, denetan. Auzo hartan izaten genuen guk San Juanekin kristoren fedea. Gu, bestetan bezala izaten zen han, orduan. Guk aitzineko egunean ez genuen deus eginen bertzerik. Horixe, prestatu gauza hori, San Juanen negozioak guretzat, Jesus, Maria eta Jose!

21. Luzean

- **Erref:** IGA-027/021
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:37:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Hori largo erraten zitzaion orduan, luzean, e! Largoan... erraten zen. Hor lehen erran dena, bi etxe izan behar zuten orain frontoia den toki horretan bertan, bi etxe, e! Arotzenea eta Arginenea omen zuten izena. Eta horreta... horiek kendu zituzten eta orain ja hobekiago dago aritzeko, baina orduan oso txarra omen zegoen, behar zenuen zuk eskibatu bi etxe haiek eta luzera jokatu, aritzeko, baina! Aunitzetan sakatu eta tak! igual etxe hori jo eta hara! Eta, raia non zegoen pasatzeko. Nik nola ez nuen ezagutu! Baina botaharria eta denak hor daude oraindik, han dago, sakatzeko eta... zera nola dagoen, oraindik ere han dago.

- Bai, eta hiru zulo, pilotak uzteko-edo, ez?

- Baita, baita. Eta horrela gauzak, bakarrik ni... ni ordukoz ez, ez, zeratik guri aitak erraten ziguten guri horrela, zeratik, Herriko etxeko leihotik, ari zen eta, norbait ere batzuentzat ideia gehiago, bere lagunak edo bere

familiakoa ez dakit, eta behinik behin handik erraten: “Bai, honek du tanto!” eta “Bai, honek du tanto!”, eta bertzeek egiten zuten denboran isil-isil-isilik, isil-isil-isilik, bai, irri egite... irrigarria izan behar zuen horrela, pues beti bere... bere lagunei... Bueno, hori denena izaten da, dudarik badu horrek bere... ez dakit e... nola den, baina ba! bai, bai, horiek, Jesus! Honek gero, lehen erran dena, Alinea da gero hor ostatua goiko aldean, hor kurba hartzen den arbola, baita arbola bat, zen arbola bat, horren ondoraino ailegatu izan behar zuten, sakea, bai.

Hau laxo... Donezteben-eta aritzen den hau, pues igualtsua da, bakarrik ez du... garbiagoa da, erran nahi nuke... frontoia eta gauzak... toki handiagoa eta zera gehiago du. Hor niretzat Iruritakoa da txarrena dena. Sakatu eta luze samar jotzen bada, bi teilatu dira aitzinean, e! Eta, teilatua jo eta beheiti et... erortzeko denboran hartzen baldin badu ona da, zer rarua, e! Pues teila gainera ia ailegatzen badute ja erraten dute ja tantoa egina da, e! eta horrela. Nik ikusi dudana un poco raro huraxe da, hori, Iruritako... plaza, bai.

- Eta Arantzara joaten zinetenean zer zen, bestetako programaren barnean hori, pilota partida, ez?

- A, bai, bai. Ba! hombre, ez gainera nolanahikoa! Bai, bai, bai, bueno. Hamar duro irabazten zen, hamar duro, zer gauza, e! jo! Bai, bai, eta hik hura entregatzen hion andreari eskutara, zerua!

22. Garbeko sorginak

- **Erref:** IGA-027/022
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:41:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Pues Garborean ziren bi ahizpa, bata soltera eta bertzea ezkondu zen bere ilobarekin, Juanitorekin, Juanito... ez... lehentxeago hil izanen zen, zu... jaio baino lehen, eta esposatu zen eta horiek ikaragarritzko sorginaren fama zuten, hagitz, denek, e! Beldurra izaten genion, eta guri beti erraten ziguten gurasoek: “Garbereco parean pasatzean hau [behatz lodia ondoko bi behatzen artean] paratu, gurutzea!

- (Lag.): Behatzarekin?

- Bai, behatzekin rabu! hori, gurutzea dela, eta orduan ez... ezin zutela deus ere egin.

Eta hori, Madalen hori, igual et... gure ama gaixoa pobrea zen, zortzi ume bazituen, gizona hila zuen gazterik, ni bi urtekoa gelditu nintzen, eta ekartzen omen zion igual:

- Maria! -oihu egin, hor Bixinon etxean bizi ginelarik, eta- bai, badut ilar zuria eta zuretzat ekarria aza!

Eta, “Oi! Madalenek sorginak ditu baina nik behar dinat hori eta, eginen dut!”. Pues ez zion inori kalterik egin, eta gure ama hiltzeko jarri zen.

Hagitz grabe jarri zen. Eta gauez beti “Maria!” eta “Maria!” hura, oihu hura aditzen zuen, beti. Eta gero hori, gauez joaten ziren neskazahar horri e... zerara, nik txar-txarra ezagutu nuen, e! Eta herriko iturrira Garberetik arropak garbitzera, eta beti gauez, eta hartik: “hori harrapatu behar diagu, Madalen, ez dun bizirik iraunen. Madalen tzar horri!”. Eta, joaten ziren, eta, beti ematen zioten horrela, bi aldeetatik lotzen ziren, bi karreteretatik

herriko iturrira hartu behar zutela, baina eskapatzen zen. Eta gero erran zioten, egun batean behinik behin harrapatu izanen zuten hurbilean, eta, berari kolpeak eman, eta kolpeak eman eta ez zen... ez zen zertzen, ez zela...

- (Lag.): Ez zuen minik hartzen.

- Minik ez zuela hartzen. Eta erran zien norbaitek, orduan hainbertze baitzen horrela aditzen zena, pues, emateko itzalari kolpea, eta orduan izanen zela kolpatua.

- (Lag.): Madalenen itzalari kolpea emanda.

- Bai, itzalari. Eta itzalari eman, eta nola dena... masakratua, dena heridekin eta...

- (Lag.): Bere itzalari jo eta berak heridak?

- Bai, berak heridak, berari eman eta ez zuela zerarik, boterarik, bueno, bazuela berak boterea nonbait ere salbatzeko. Horrela erraten zuten lehen. Eta gero, elizara joaten ziren hori, emakume hori, eta, apezak, liburua ixten bazuen, meza eman, eta meza emateko liburua, libro sagrado edo hori, e... hura... ixten bazuen, pues ez zen elizatik ateratzen, hura.

- Eta zer egiten zuen?

- Eta han egon, apezak berriz ireki arte. Eta, apezak, nonbaitetik enteratu zen, nik apez zahar hura ezagutzen nuen, enteratu zen zerbaitez, eta, egin zuten egun batean irekia utzi, irekia utzi, eta sakristiara hura joan eta orduan atera, bertzela han egoten zen Madalen, elizan.

Eta gero behinik behin gaizkitu zen e... hori, eta, apeza deitu, eta apezak bazekien hala zela, eta hori egia omen da, e! Pasatua... Nik bertzeek erran zituztenak zertzen ditut, kontatzen ditut, eta, apezak erran zion:

- Orain, Madalen, zer egin behar duzu? Holaxe egon beharko duzu sufritzen. Orain nori eman behar dizkiozu zure gaiztakeria horiek?!

- Eta hori emanen dizkiot... nori emanen dizkiot?! -han zuen koinatua be... eta ahizpa, baina...- emanen dizkiot oilarrari!

Eta :

- Oilarra?! Oilarrak ez du izanen, zuk duzun boterea ez du izanen oilarrak! Eta, orduan eman zizkion oilarrari eta beheitiko biga bati, bueno, behi bati, biga, ederra omen zuten, eta, hura zeratu zuelarik, apeza han omen zen, zer... bere zerak ematen eta... ari omen zen eta, orduan Madalen hil zen, eta harekin batean oilarra, eta beheitiko biga, eta horretan akabatu zen Madalen.

23. Argatako laminak

- **Erref:** IGA-027/023
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:41:46. **Bukatu:** 00:42:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- ...Ilunduta ez zela emi... ez omen zen ibili behar izaten. (...) Ez, ez zela ibili behar behin ere ilunduta, ge... neska hura... ilunduta joan, ur eske, suilean a... suilak izaten ziren... suila eta burutea (...). Eta klaro, neska haiek gelditu eta... joan omen ziren eta eman zioten zeratik...

- (Biloba): Tximiniatik.

- Tximiniatik beheiti suila. Eta erran zuten:

"Gaba gabazko,

eguna egunazko,
gaba gabazko
eta Argatako alaba gureta...
guretzat eta suila Argatakoentzat”.

24. Haurren kantak

- **Erref:** IGA-027/024
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:42:27. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hori aitzak erakusten zigun, a... aitzak horrela, hala hankaren gainean paratu, haurrak, kantatzen zigun:

Arre-arre mandoko

Bihar Iruñerako,

Etzi Tolosarako.

Handik zer ekarriko?

Zapata eta gerriko.

Norentzat? Norentzat?

-(orduan erran behar zuen zeinentzat)-

Juanentzat.

Eta bertzea izaten zuen zare... “zare bat kukuso”. Kanta berarekin sare, “zapata eta gerriko”-ren tokian “sare bat kukuso”. Eta horrela paratu eta:

- Zu, zuri “zapata eta gerriko” eta zuri “kukusoak”...

Eta:

- Ez, ez nik ez dut nahi “kukusoak”, nik “zapata eta gerrikoa”.

25. Talo talo txin

- **Erref:** IGA-027/025
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:43:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Talo talo txin!

Hator etxera Martin

Ogi puska handi batekin.

Taloa zagok adarrean

Bere aulki nabarrean.

Pirri, porru eta purru,

Pirrip eta purrun,

Hire bizkarrean!

26. Ukendua nola egin

- **Erref:** IGA-027/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:43:17. **Bukatu:** 00:45:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Pues paratzen da zartagin batean olio, eta hari ematen zaio bi txisterka baratxuri, eta gero botatzen da, pues, erretxina, eta xaboia lagarto edo... pix... xerratu pixka bat, eta hara bota. Eta erretxina bota hara eta argizaria ere bai. Eta horiek denak zartaginean urtzen direlarik... urtzen direlarik, pues, egiten da pasmo-belarra ongi zanpatu trapu zuri batean, eta haren ur ura bihurtu, eta botatzen zaio hari tanta batzuk, bost-sei tanta edo horrela. Eta gero ura dena egiten da trapu zuri batean edo pasadore fin-fin batean egiten da pasatu, eta gero tarroetan paratu edo katxarro batzuetan paratu. Eta... egiten baduzu pasmo-belarra idorrarekin ura frijitu bertzearekin batean, baina ez du ahalko pro... zerik, indarrik ez du hainbertze berdearekin tantak botata bezala. Eta yasta, hori egina dago. Eta horrek aguantatzen du urteak aguantatzen ditu, bakarrik toki freskoan paratuta. Eta horrek sendatzen ditu dibiesoak, heridak, denak, ateratzen dio zikina dena, eta garbi-garbia uzten du eta ez du uzten ez kangrenarik ez zerik deus ere, ongi garbitzen du eta horrela sendatzen da. Horrek zikina dena ateratzen du, denari, zera guztiari, eta gero aurpegian pixka bat ematen baduzu ere, es... zertzen da, fin-fina jartzen da arratsean horrela pixka bat ematen baduzu, eta honek aunitz gauzatarako. Erreen a... erreentzat ere bai, erretzen baldin bada eskua edo... hanka edo... zera, horretatik paratu pixka batzuk, eta hura segidan sendatzen da. Eta egin behar badira bendak, baldin bada handia, pues egiten dira bendak, horrela igual pomada bezala egin, olioarekin eta, eta han busti benda urean, eta gero hartan pasatu, eta kaxa garbi batean paratu, eta hura beti fresko egoten da, ez da idortzen. Eta harekin paratu, lotu denak, eta harekin sendatua gelditzen da.

27. Kalitxak

- **Erref:** IGA-027/027
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:45:43. **Bukatu:** 00:50:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta kalitxak kentzeko zenbat modu daude, edo bueno, jendearena kentzeko eta gero animaliena, edo behiena, edo...?
- Bueno, aunitz modu badaude. Nik iba... hiru edo horrela dakizkit baina... lehenbiziko bat da baratxuriarekin. Baratxuria ed... ireki, puskatu, eta harekin igurtzi, eta joaten direla. Ez dut harekin probarik egin. Baina bertzea da tipula. Tipula ere ebaki, eta harekin kalitxak ongi igurtzi. Baina hori egin behar da ilargia beheiti dagoelarik, eta ilargiari begira jarrita, terrazan edo kanpora atera eta ilargia non den, hari begira tipula

harekin igurtzi kalitxak. Tipula hura berriz bildu, paratu lehen bezala, eta bota behar duzu gibelera, zuk ez begiratu non... nora erortzen den. Eta kalitxak joanen dira.

Eta bertzea da patatarekin igual. Patata ere... ireki, puskatu, eta harekin, ur harekin denak, kalitxak ongi igurtzi eta patata hura nik, zuk baldin badituzu kalitxak, zuk egin zuhaurek patata harekin kalitxak denak ongi igurtzi, eta gero patata lehenago bezala paratu eta eman behar didazu niri. Eta nik ez diot erran behar inori ere patata ura non gordetzen dudan. Nik gorde behar dut patata hura, isil-isilik eta zuri joanen zaizkizu kalitxak patata hura ust... usteltzen delarik, hura nik nonbait ere gorde, eta hura bera usteltzen delarik, orduan joaten omen dira kalitxak.

(...)

- Eta orbela... harri azpian paratuta...

- A, kalitxentzat (...). Hori egiten da, egiten zuten San Joanera joan eta han badira hiru txorro ur, ura eta hiru uretan ongi garbitu lehenbiziko kalitxa. Eta gero, orbel batekin igurtzi hura, kalitxak. Eta hosto hura, han bazterrean, uraren bazterrean paratu lurrean eta gero hari gainean harri bat. Lehenbiziko harri bat azpian, hostoaren azpian, eta gero bertze... hos... hura tartean hosto hura eta gero harria gainean eta utzi. Eta akabo, kalitxa joan da.

Eta animaliei berriz apoa. Zer animalia duzun kalitxarekin, haren parean paratu behar duzu, apoa bilatu kanpoan, eta poto batean sartu, poto hura itxi, eta iltze batekin animalia haren parean apo hura. (...) Behar du animaliak han egon, kuadrán dagoelarik. Eta, akabo, zuk utzi hura, kasurik ere gehiago, eta zuhaurek batere ez dakizularik, joa... joanak zaizkio kalitxak denak, ez du izanen bakarrik.

- Eta apoa ze... idortzen da, edo zer pasatzen zaio potean?

- Ahoa egiten izanen da bere hartan kontsumitu, idortu, klaro. Gero, kalitxa joan zaionean zuk poto hura hartu ezazu eta ez da aporik, kontsumitu izaten da dena. Baina harekin seguru joanen zaizkiola.

- Eta hori nork erakutsi zizun, edo... nork erran zizun?

- Hori... guri aitzak erran zigun, aitzak m... ez dakit nondik ikasi izanen zuen. Aitzak izaten zuen fede handia, eta... proba aunitz egin zuen eta beti ongi ateratzen zen. Guk ez genuen bertze erremedioarik ibiltzen kalitxa behiari kentzeko, apoa.

- Eta, normalean behiari ateratzen zaizkio? Kalitxak?

- Bai, behiak izaten dituzte titian, eta jeztara joaten zinelarik, haiek han, pikorrak han, eta nahi nuen, orain makinaz egiten diete, baina nola egiten zen dena horrela eskuz, egiten zen, behiak egiten zuen mina hartu, eta aritzen zen ostikoka, eta jezteko gelditzen zen hagitz gaiztoa. Eta orduan hori paratu eta ez zen problemarik izaten.

- Eta behin zer pasatu zitzaizun, bueno, aitari... zure aitari zer pasatu zitzaion behorrek bazuela kalitxa eta...

- Pasa zitzaion ana... anaiak bia... bazuten behor bat, eta anaiak erraten zion, bueno, behorra zuten kalitxarekin, eta anaiak erraten zion hura beterinarioak kendu beharko zuela, handia zela eta... e, apoarekin ez zela joanen. Eta aitzak erraten zion bai, apoarekin joanen zela. Eta, e! erranen ziotela beterinarioari. Eta erran zioten beterinarioari, eta beterinarioak eman zion erremedioa, eta harekin egin eta lotu eta ez dakit zer, kendu zion kalitxa hura. Baina hala egon zen pixka batean, baina berriz etorri zen kalitxa, eta berriz ere handia. Eta aitzak nahi zuen apoarekin proba egin. Noizbait ere apoa bilatu zuen aitzak, sartu zuen potoan, eta behor hura zuten ixtegi handi baten barrenean, eta behorra zegoen ixtegi hartan, paratu zion aitzak apoa, eta (horrela-horrela) denbora handia joan zen, apo hura akabatu bitarte, kontsumitu bitarte potoaren barrenean, eta joan zitzaion kalitxa. Eta gero semeak ere orduan, lehenbiziko ez zuen

hainbertze sinesten, baina gero sinetsi zuen pues txikia eta... kalitxa txikia eta handiarekin ere apoak bazuela erremedioa. Eta akabo, hartatik ez zen, gehiago ez zitzaion etorri behorrari kalitxarik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com